

## URIBE KOSTAKO 10-14 URTE BITARTEKO GAZTETXOEN ARTEAN URIBE KOSTAKO EUSKARAZKO AHOZ ETA IDATZIZKO ONDAREA EZAGUTZERA EMATEKO DAGOKION ZERBITZUA, PROZEDURA NEGOZIATUAREN BIDEZ ETA PUBLIZITATERIK GABE, KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIAK

### 1. KONTRATUAREN HELBURUA

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko euskara zerbitzua osatzen duten udalerrietako (Lemoiz, Plentzia, Gorliz, Barrika, Urduliz eta Sopela) hizkuntza ondarea, ahozkoa zein idatzizkoa, era ludiko eta entretenigarrian ezagutzera ematea da kontratu honen xedea. Horretarako, lehiaketa bat antolatuko da eskualdeko gazteen artean. Hona hemen, zehazki, zerbitzuaren nondik norakoak:

### 2. ZERBITZUAK: ALDIAK ETA DESKIPZIO TEKNIKOA

#### Aldiak

Proiektuak fase hauek izango ditu:

- Koordinazioa
- Iaz sortutako materiala osatu
- Aurkezpenak Uribe Kostako ikastetxeetan
- Zabalkunde orokorra
- Frogak landu eta webgunera igo
- Parte-hartzaileekin harremana
- Final-aurrea, eta berau antolatzea
- Finala, eta berau ere antolatzea

#### Deskripzio teknikoa

##### **A.- Koordinazioa:**

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuarekin, ikastetxeetako zuzendaritzekin eta euskal munduko eragileekin egin beharko dituzte koordinazioak.

### **B.- Materiala prestatu:**

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak dagokion enpresari emango dion materialarekin gaztetxoentzako froga ludiko, entretenigarri eta ikasterrazak sortuko dira.

Erabiliko den materiala: *Ze ikusi ha ikasi* liburu eta DVDak, Gorliz, Sopela eta Urdulizko toponimia liburuak eta Benito Otazua idazle urduliztarrak itzulitako Andersenen ipuinak izango dira.

### **C.- Aurkezpenak Uribe Kostako ikastetxeetan:**

Lehiaketaren oinarriak eta materiala Euskara Zerbitzuarekin adostu ostean, lehiaketaren berri emateko, ikastetxeetan aurkezpenak egin beharko dira. Bertan, proiektua azaldu beharko liekete bertako gaztetxoei, era erakargarrian, haien inplikazioa lortzeko asmoz. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko ikastetxeak: Zipiriñe, Iberre, Ander Deuna, Elortza, Gorlizko eskola, Lemoizko eskola, Plentziako eskola, Gazte Bulegoa eta Uribe Kostako institutua.

### **D.- Zabalkundea:**

- Enpresak prentsa-oharrak prestatu beharko lituzke, Uribe Kostako komunikabideetara eta gainontzeko komunikabide ezagunetara bidaltzeko.
- Triptikoak eta kartelak prestatu, eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan jarri eta banatu beharko lituzke.
- Zabalkundea egiteko gazteentzako erakargarriak diren formatuak erabili: sare sozialak eta webguneak.
- Izen-emateak kudeatu eta taldeak antolatu.

### **E.- Frogak landu eta webgunera igo**

- Bi asterik behin materialen atal berri bat igo beharko dute webgunera, eta sare sozialen bidez zabaldu.

### **F.- Parte-hartzaileekin harremana**

- Enpresak etengabeko harremana izan behar du gaztetxoekin; hala nola: materiala ondo deskarga daitekeen galdetzeko, etab.

### **G.- Finalaurrea, eta berau antolatzea**

- Formatua diseinatu. Honetarako, enpresak honako material hauek izan beharko lituzke: 3 mahai,

atril bat, lau mikro, argiztapen egokia, ordenagailutik proiektatzeko aukera, plasmak, pantaila.

- b. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuarekin koordinatu, data, lekua, ordua, etab. zehazteko.
- c. Ekitaldia aurkeztu. Finalaurreko aurkezlea eta ikusleak gainbegiratzeko begiralea enpresak kontratatutakoa izan beharko dira.
- d. Sariak. Enpresaren aurrekontuaren barne geratzen dira finalaurreko eta finaleko sariak. Parte-hartzaile guztiek izango dituzte sariak, baina erakargarrienak bigarren eta lehen sailkatuek izan beharko lituzkete.

#### **H.- Finala, eta berau antolatzea**

- a) Formatua diseinatu
- b) Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuarekin koordinatu, data, lekuak, ordua, etab. zehazteko
- c) Ekitaldia aurkeztu
- d) Sariak banatu
- e) E-maila komunikabideei jakinarazi eta sare sozialetan eskegi.

### **3.- ZERBITZUAREN HELBURUA:**

Aurretik esan bezala, zerbitzuaren helburu nagusia gaztetxoentzako era ludiko eta entretenigarrian Uribe Kostako ahozko eta idatzizko ondarea ezagutzera ematea izango da. 10-14 urteetako gazteei zuzentzen zaion zerbitzua da.

Hala ere, helburu zehatz hauek ere aipa ditzakegu:

- Gaztetxoekin euskara modu arin eta gozagarrian lantzea.
- Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea.
- Euskal mundua, euskal kultura, ahozko eta idatzizko ondarea eta euskarak eskaintzen dituen baliabideak ezagutaraztea.
- Euskara landuz gozatzea.

#### 4.- GIZA BALIABIDEAK

Egitasmo osoaren ardura pertsona batek hartuko du, nahiz eta eragileekin eta gaztetxoekin duten batzarretan bi pertsona joatea eskatuko da. Lan-taldearen lan-hizkuntza euskara izango da, bai ekintzak koordinatu eta programatzerako orduan eta bai ikasleekiko harremanetan.

Lan-taldearen profila ondorengoak izango da:

##### Arduraduna

- Diplomata edo lizentziatua.
- EGA titulua edo baliokidea.
- Eskarmentua komunikazio-arloan, baita era honetan egin diren beste lehiaketetan ere bai.
- Uribe Kostako Mankomunitatea eta berau osatzen duten ikastetxeak ezagutzea.

Zerbitzua garatuko duten langilearen zereginak ondorengoak izango dira:

##### **Koordinazio-eginkizunak:**

- Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuak emango dion ikastetxe zerrendan oinarrituta, bertako ikasleekin harremanetan jarri proiektua azaltzeko.
- Ikastetxeetako arduradunekin batzartzea: taldeak ekintzaren jarraipena egiteko, egin beharreko balorazioak egiteko ...
- Koordinazioa Euskara Zerbitzuarekin.
- Antolaketa, funtzionamendu eta jarraipen-lanak egitea, begirale/dinamizatzaileekin batera.
- Lehiaketa amaitzen denean balorazio txostena egitea.

##### *Koordinatzailea:*

Koordinatzaileak kudeatu beharko du bere denbora koordinazio-zereginak aurrera eramateko. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak ez du gutxieneko eta gehieneko ordurik finkatuko. Lan hau bere lanpostutik egin ahal izango du koordinatzaileak eta Uribe Kostako ikastetxeetara eta Uribe Kostako Mankomunitateko bulegora etorri behar izango du antolaketa eta koordinazio-batzarretan parte hartzeko bakarrik.

#### 7.- BALIABIDE MATERIALAK

Baliabide materialei dagokienez, finalurrekoa eta finala egiteko Urdulizko Kultur Etxea eta Sopelako Kurtzio Kultur Etxea erabiliko dira.

## **8.- ZERBITZUAREN EBALUAZIOA**

Ebaluazioari dagokionez, enpresa esleipendunak proiektu amaierako oroitidazkia aurkeztu beharko dio Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko teknikariei.

Euskara Zerbitzuak ikuskatu ahal izango ditu zerbitzuari lotutako ekintzak. Horrez gain, egiaztatu ahal izango du enpresa esleipendunak betetzen dituela baldintza-agiri hauetan ezarritako baldintza tekniko guztiak.

## **9.- KONTRATUAREN-ZENBATEKOA**

Kontratuaren prezioa, gehienez, 11.000 eurokoa izango da (BEZ-a barne). Kopuru hau beherantz hobetu ahal izango du enpresa eskatzaileak. Prezio horren barnean kontzeptu guztiak daude: Balio Erantsiaren gaineko Zerga, enpresa-etekina, gastu orokorrak, etab.

## **10.- KONTRATUAREN IRAUPENA**

Kontratuaren iraupena sei hilabetekoa izango da, eta beste sei hilabete luzatu ahal izango da.